aipatu elkargoek–. Estatutuak onartu aurretik, ikusgai izango dira hilabete batez, gutxienez, eta epe horretan elkargoek eta elkargokideek bidezko deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

*Bigarrena.–* Estatutuak egiaztatu eta argitaratzea.

Estatutuak onartu ostean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari jakinarazi beharko dizkio Batzordeak, Justizia arloan eskumenak dituen sailaren bitartez jakinarazi ere, hain zuzen ere, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 33.5 eta 45.3 artikuluen arabera, legezkotasunarekin bat datozenentz egiaztatzeko, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara daitezela agintzeko.

*Hirugarrena.–* Gobernu-organoak eratzea.

Estatutuak argitaratu ostean, eta estatutuetako arauetan jasotakoarekin bat, eratu beharko dira Kontseiluko gobernu-organoak. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da gobernu-organoen eraketa.

AZKEN XEDAPENA

*Bakarra.–* Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko urriaren 23an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

18/1997, de 21 de noviembre. Con carácter previo a su aprobación se someterán a información pública de los Colegios y los colegiados por un plazo no inferior a un mes durante el cual podrán formular las alegaciones que estimen pertinentes.

*Segunda.–* Verificación y publicación de estatutos.

Una vez aprobados los estatutos la Comisión los comunicará a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento competente en materia de Justicia, para verificar su adecuación a la legalidad, de conformidad con lo previsto en el artículo 33.5 en relación con el artículo 45.3 de la citada Ley 18/1997, de 21 de noviembre, y ordenar su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

*Tercera.–* Constitución de los órganos de gobierno.

Una vez publicados los Estatutos, se constituirán los órganos de gobierno del Consejo conforme a lo previsto en las citadas normas estatutarias. La constitución de los órganos de gobierno será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL

*Única.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2001.

El lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
## OSASUN SAILA

## Zk-6136

247/2001 DEKRETUA, urriaren 23koa, lehengo Elkargotik bereizita, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Psikologoen Elkargoak eratzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.22 artikuluan ezartzen denez, Profesionalen Elkargoen eta Tituludun Lanbideen alorreko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari baino ez dagokio, Es-

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## N°-6136

DECRETO 247/2001, de 23 de octubre, por el que se constituyen, por segregación, los Colegios Oficiales de Psicólogos de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa.

El artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco competencia exclusiva en materia de Colegios Profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio

painiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan agindutakoa hautsi gabe, betiere.

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea aipatu eskumenaren indarrez eman zen. Lege horren hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoa baino esparru zabalagoa duten profesionalen elkargoei dagokienez, era horretako elkargoetako profesionalek EAEren eremuan edo txikiagoan elkargoa eratzeko eta estatutu arautzaileak onartzeko aukera izango dute, baina ezingo dute lurralde-eremu berean lanbide bakar baterako elkargo profesional bat baino gehiago izan, debekatuta baitago.

Halaber, 29.3 artikuluan ezarrita dagoenez, elkargo baten sorrera beste bat edo batzuk deuseztatzeagatik edo esparru zabalagoko beste batetik bereizteagatik gertatzen denean, eraginpeko elkargo guztien aldeko irizpena beharko da. Gero, dagokion kontseilu profesionalak txostena egin beharko du derrigor, eta, azkenik, Jaurlaritzak dekretua emango du, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den.

Psikologoen Elkargo Ofizialak, 2000ko apirilaren 8an egindako ohiko bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza bereiztea eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Psikologoen Elkargo Ofizialak sortzea erabaki zuen. Erabaki hori berretsi egin zuen ordezkaritzak, 2000ko uztailaren 7an Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabaki batez.

Oinarri horien arabera, elkargoak egindako eskabidea justifikatuta dagoenez, indarrean den legedian jasotzen diren izapideak beteta, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak eta Osasun sailburuak proposatuta, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko urriaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Psikologoen Elkargo Ofizialetik bereizita, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Psikologoen Elkargo Ofizialak eratzea.

*2. artikulua.–* Arabako Psikologoen Elkargo Ofizialak Arabako Lurralde Historikoan jardungo du, eta Vitoria-Gasteizen izango du egoitza.

*3. artikulua.–* Bizkaiko Psikologoen Elkargo Ofizialak Bizkaiko Lurralde Historikoan jardungo du, eta Bilbon izango du egoitza.

*4. artikulua.–* Gipuzkoako Psikologoen Elkargo Ofizialak Gipuzkoako Lurralde Historikoan jardungo du, eta Donostia-San Sebastiánen izango du egoitza.

*5. artikulua.–* Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Psikologoen Elkargo Ofizialek dekretu honetan ezarri-

de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

En desarrollo de dicha competencia se promulgo la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales, cuya Disposición Adicional Tercera establece, para los colegios profesionales de ámbito superior a la Comunidad Autónoma, que los profesionales integrados en Colegios de esta índole podrán constituir un Colegio en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma o inferior y aprobar los estatutos por los que debe regirse toda corporación profesional, sin perjuicio de la prohibición de existencia en un mismo ámbito territorial de más de un colegio profesional de la misma profesión.

Asimismo, en su artículo 29.3 se establece que la creación de un colegio profesional, cuando se produzca por la disolución de otro u otros, o por segregación de otro de ámbito superior, requiere acuerdo favorable de cada uno de los colegios afectados, posterior informe preceptivo del consejo profesional correspondiente y, por último, decreto del Gobierno, que ha de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco.

El Colegio Oficial de Psicólogos acordó en Junta ordinaria celebrada el día 8 de abril de 2000 la segregación de la Delegación del País Vasco y su transformación en los Colegios Oficiales de Psicólogos de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa. Dicho acuerdo fue ratificado por la citada delegación por acuerdo de su Junta Rectora de fecha 7 de julio de 2000.

Sobre estas bases, considerando justificada la solicitud promovida por el referido Colegio, y una vez cumplidos los trámites previstos en la legislación vigente, a propuesta de los Consejeros de Justicia, Empleo y Seguridad Social y Sanidad, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de octubre de 2001,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Se constituye, por segregación del Colegio Oficial de Psicólogos, los Colegios Oficiales de Psicólogos de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa.

*Artículo 2.–* El Colegio Oficial de Psicólogos de Alava extiende su ámbito territorial al Territorio Histórico de Alava, radicando su sede en Vitoria-Gasteiz.

*Artículo 3.–* El Colegio Oficial de Psicólogos de Bizkaia extiende su ámbito territorial al Territorio Histórico de Bizkaia, radicando su sede en Bilbao.

*Artículo 4.–* El Colegio Oficial de Psicólogos de Gipuzkoa extiende su ámbito territorial al Territorio Histórico de Gipuzkoa, radicando su sede en Donostia-San Sebastián.

*Artículo 5.–* Los Colegios Oficiales de Psicólogos de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa adquirirán personalidad ju-

takoaren arabera eratuko dituzte gobernu-organoak, eta une horretan hartuko dute, hain zuzen, nortasun juridikoa eta jarduteko erabateko gaitasuna.

*6. artikulua.–* Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Elkargo Ofizialek estatutuak prestatu eta onartuko dituzte bakoitzak bere aldetik, beti ere, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea ezeztatu gabe eta 33. artikuluko 5. eta 6. idatz-zatietan ezarritakoa betez.

XEDAPEN IRAGANKORRA

4. artikuluan adierazitako esatutuak onartzen diren bitartean, martxoaren 18ko 481/1999 Errege Dekretua aplikatuko da, Psikologoen Elkargo Ofizialeko Estatutu Orokorrak onartu zituena, baldin eta Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen kontrakoa ez bada.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Psikologoen Elkargo Ofizialeko Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritzako lurralde historiko bakoitzeko ordezkariordetzek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Elkargoetako estatutuak prestatuko dituzte, eta onartu ondoren, Justiziaren alorrean eskudun den sailaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari jakinaraziko dizkiote, legediaren araberakoak diren egiaztatzeko eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

*Bigarrena.–* Estatutuak argitaratu ondoren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Elkargoetako osokoei deituko zaie, gobernu-organoak osatuko dituzten kideak aukeratzeko. Gobernu-organoen osaerak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

*Hirugarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko urriaren 23an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

Osasun sailburua,
GABRIEL MARIA INCLAN IRIBAR.

rídica y plena capacidad de obrar a partir del momento en el que, conforme a lo dispuesto en el presente Decreto, se constituyan sus órganos de gobierno.

*Artículo 6.–* Los Colegios Oficiales de Psicólogos de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa elaborarán y aprobarán sus Estatutos de forma autónoma, en cuanto no contradigan la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales y sin perjuicio de lo establecido en su artículo 33 apartados 5 y 6.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En tanto no se aprueben los Estatutos contemplados en el artículo 4, será de aplicación el Real Decreto 481/1999, de 18 de marzo, por el que se aprueban los Estatutos Generales del Colegio Oficial de Psicólogos en todo lo que no se oponga a Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–*. Las Subdelegaciones de cada uno de los Territorios Históricos de la Delegación de Euskadi del Colegio Oficial de Psicólogos elaborarán los respectivos Estatutos de los Colegios de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa y los comunicarán, una vez aprobados, a la Administración General del País Vasco, a través del Departamento competente en materia de Justicia, para verificar su adecuación a la legalidad y ordenar su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.–* Una vez publicados los Estatutos, se convocará a los respectivos órganos plenarios de los Colegios de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa al objeto de proceder a la elección de los miembros integrantes de los órganos de gobierno. Las constituciones de los respectivos órganos de gobierno serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Tercera.–* El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL MARIA INCLAN IRIBAR.